

Izaro Arrondo Mujika

A maila • 2 aipamena

Ni Beasaingo Izaro Arrondo Mujika nauzue. 2002ko martxoaren 4an jaio nintzen. Gaur egun, Beasaingo Txindoki-Alkartasuna institutoan 2. Batxilerra ikasten ari naiz. Betidanik gustatu izan zait irakurtzea eta baita idaztea ere. Egia esan, beste urte batzuetan sari edo aipamenen bat ere jaso izan dut, baina aurtengo honek bereziki izugarri poztu nau. Alde batetik, berrogeialdian nagoen bitartean jaso dudalako berri on hau eta beste aldetik, idazlan lehiaketa honetan parte har dezakedan azken aldia delako. Espero dut, nik idatzi dudan istorioa hau irakurtzen duzuenean asko disfrutatuko eta maitasunean sinetsiko duzuela.



BENETAKO MAITASUNA

Maitasuna indar handia da eta ametsak egia bihur daitezkeela pentsatzen duenak zerbait badaki. Bai horixe!

Amona Engraxiri urteak pasatu zaizkio eta zahartu egin dela dio berak. Baina ez da egia borobila. Jakina! Ez da nik ezagutu nuen amonatzeko eder, dotore eta elegante hura, urteak pasa egiten dira eta horrek denoi ekartzen digu bere ordaina. Baina, hala ere, nahiz eta beti izan den andre atsegina eta dotorea, orain emakume atseginagoa eta goxoagoa ikusten da, guztiz gustura dagoela ikusten da.

Badira bost urte aitona hil zela. Nire aitona joan zitzaigunean, amonak esan zigun nahiz eta bera orduan bere burua zaintzeko gai izan, guretzako inoiz ez zuela karga bat izan nahi eta zahar-etxera joan nahi zuela. Denok zur eta lur eginda utzi gintuen. Nola zitekeen! Nola etor zekioken horrelako gauza bat burura gure amona kuttunari! Karga bat izan! Ezta pentsatu ere! Saiatu ginen behin eta berriz hura burutik kentzen, baina gure ahalegin guztiak alferrikakoak izan ziren, bere nahia hori zioen eta guk ez bagenizkion paperak taxutzen beste norbaiti eskatuko ziola laguntza, baina berak hara joan nahi zuela.

Honela, aitona hil eta hilabete batera berak aukeratutako zahar etxera eraman genuen. Amonak bere etxea utzi zuenean izugarrizko negarrak egin nituen, bazirudien ez zela berriro itzuliko, betiko galduko nuela. Hura zen une tristea!

Zahar etxera iritsi nintzen lehenengo egunean ere oso toki tristea iruditu zitzaidan toki hura. Han gaixoak, zaharrak eta kontu tristeak bakarrik zeuden. Bat erdi negarrez zegoen seme-alabek hara eraman zutela, baina berak ez zuela han egon nahi esanez, beste bat inor ez zitzaiola bisitan joaten esaten ari zen, bestea han eserita erdi lo zegoen, haren ondokoa aldiz jotak kantatzen ari zen... Baina zer zen hura! Nola esan zezakeen nire amona maiteak hara joan nahi zuela, zer egin behar zuen han? Norekin egon behar zuen? Nork egingo zizkion laztanak, zeinekin eduki zuen elkarrizketa xume bat? Bere kontuak nori kontatuko zizkion...? Hura zen tristura!

Oso gogorra iruditzen zitzaidan gurekin egotea baino nahiago zuela honelako zahar-etxe batean egotea onartu behar izatea. Ezin nuen jasan! Non zegoen hutsunea? Zertan huts egin genuen? Amonak behar zuen hori ematen ez al genuen jakin izan? Nik bere beharra sentitzen nuen, baina berak ez al gintuen behar? Gurekin egoten zen une horiek ez al zituen benetan atsegin? Nire amarekin behin eta berriz hitz egiten nuen egunean zehar egoera honetaz, baina berak ez zekien zer esan. Bera ere erabat galduta zegoen, aitona galtzearen ondorioa izango zela esaten zidan, baina kontua da, amonak aitona hil zenetik ez zuela bere izenik, Guillermo, aipatu ere egiten. Bizi izan ez balitz bezalaxe!

Oso une gogorrak eta tristeak izan ziren. Alde batetik aitona galdu nuen eta oso triste nengoen, eta honek hutsune ikaragarria utzi zidan, bestetik amona zahar-etxera eramanez genuen, hau ere oso latza izan zen... Baina denbora aurrera zihoan heinean, amona oso gustura ikusten nuen. Egutero joaten nintzen bera bisitatzen eta oso pozik ikusten nuen. Goizetan, egutero, dutxatu eta prestatutakoan, gosaldia egiten zuten eta ondoren bertako zaintzaileek egunkaria irakurtzen zieten egongelan. Ondoren, paseotxo bat ematen zuten eta bazkaltzera joaten ziren. Arratsaldean, berriak ikusten zituzten telebistan eta han egoten ziren meriendatzeko ordua iritsi arte. Gero bingoan, kartetan edo jokuren batean jokatzen zuten. Handik ateratakoan paseotxo bat ematera joaten ziren eta bisitaren bat etortzen bazitzaie beraiekin egoten ziren afaltzeko ordua iritsi arte.

Honela hilabete pasatu zuen zahar-etxean eta denok lasaitu egin ginen, oso ederki eta oso gustura ikusten baikenuen amona eta bere nahia bete genduelako ere bai.

Hurrengo hilean, gutxi gora-behera, bisitara joan nintzaion egun batean gauzatxo bat adierazi nahi zidala esan zidan. Beste inori oraindik ez ziola kontatu, baina niri gauzatxo bat erran nahi zidala. Biok elkarri heldu besotik eta kafetegi batera joan ginen kafetxo bat hartzera. Zahar etxean azken 8 urtetan bizi zen Antonio izeneko gizon batekin egon ohi zela eta oso gustura egoten zirela biak elkarrekin. Lehen ere elkar ezagutzen zutela, baina urte asko zirela elkarrekin egon gabe zeudela. Lehenengo niri galdetu zidan zer iruditzen zitzaidan eta nik oso iruditzen zitzaidala esan nion. Orduan eskatu zidan nire amarekin tanteatzeko zer iruditzen ote zitzaion, honelako harreman bat izatea. Ni zur eta lur utzi ninduen, nork pentsa zezakeen 78 urterekin nire amona laztana maiteminduko zenik!

Hala, etxera etorri nintzen eta nire amarekin hasi nintzen hizketan amonari buruz. Biok ados geunden oso gustura ikusten genduela, baina amonak agindutako enkargua egiten hasi nintzenean, nire amari aurpegiko kolorea aldatu egin zitzaion. Ezin zuen sinetsi bere ama adin horretan maitemintzea, ezin zuen ulertu bere aita hil zenetik gehiago ez aipatzea.... elkarriketa moztu eta biok ohera joan ginen.

Amonarengana joan nintzen hurrengo egunean eta amonari zer gertatu zen adierazi nion. Bera oso triste jarri zen, eta esan zidan nire amak onartzen ez bazuen ere bera harreman horrekin jarraitzeko asmotan zegoela, eta jarraitu egingo zuela.

Beste hilabete batean nire amak ez zidan ezer aipatu amonaren harremanari buruz eta erdi haserretuta zegoenez, ez zen bisitan ere joan. Baina amonak ez zuen denbora alferrik pasatzen utzi eta Antoniorekin logela batean jartzeko paperak taxutu zituen eta biak logela batean jarri ziren. Azkenean amari gogorra egin zitzaion, baina onartu beharrean gertatu zen eta bisitan joaten hasi zen.

Duela hilabete amona Engraxiren armairura joan nintzen berak aurkitzeko eskatu zidan kutxatxo baten bila. Haren bila ari nintzenean, eskutitz bat aurkitu nuen liburu baten barruan

sartuta. Ez zen kuxako eskutitz bat, zer zen gutun hori? Nork idatzi ote zuen? Ezin nuen ireki gabe utzi, kuxkuxeatu beharra sentitzen nuen. Honela, bi aldiz pentsatu gabe, irekitzen hasi nintzen:

Nire Engraxi maitea!

Ez da posible! Ezin nauzu horrela utzi. Biok elkar maite dugu eta zure gurasoek gure arteko maitasuna onartze ez badute, Ameriketara edo beste nonbaitera, urrutira joango gara. Baina, arren, ez zaitez ezkondu maite ez duzun pertsona horrekin zure etxekoek hori nahi dutelako, ezkon gaitezen biok hemendik at.

Nire laztana! Zoriontsu izateko eskubidea dugu, baita maitatzekoa ere. Ni ahaztu eta zuk Guillermo noizbait maiteko duzula esateak ez du balio, hori behartutako ezkontza da. Eta ni, zer? Zuk esan zenidan bezala, nik ere norbait aurkituko dut. Horrek ez dit balio! Nik zu maite zaitut eta zuk ni maite nauzu. Ni langile xume bat naiz, Guillermok dirua izango du, baina ez zaitu zoriontsu egingo. Denok dakigu nolako harroputza, emakumezalea den eta garrantzitsuena, ez duzue elkar maite.

Beno bihotza! Mesedez! Jakin ezazu bizi guztia zure zain egongo naizela. Nire bihotzaren zatia zara eta ezin zaitut galdu.

Muxu handi bat! Laster arte!

Antonio

Gorputz guztia oilo ipurditu zitzaidan! Baina zer da hau! Nire bizitza guztia goitik behera erori zitzaidan. Alde batetik, jakin nuen nire aiton-amonen ezkontza beraien gurasoek moldaturikoa izan zela, elkar ez zutela maite ezkondu zirenean eta gerora ere maite izan ote zuten pentsatzean nire zalantzak sortu zitzaizkidan... Eta bestalde, orain beste makina bat gauza ulertzen nituen, aitona hil zenean amonak zuen presa zahar-etxera joateko, Antonio han zegoela bazekien eta bera noiz agertuko zain bizi guztia zeramala ere bazekien, bien arteko maitasuna bizi guztikoa izan zen, beti maite izan zuten elkar... Benetan polita zen alde batetik, baina beste aldetik oso tristea ere bazen. Ni ez nintzen maitasun istorio baten ondorengoa, baizik eta interes batzuen ondorioz jaiotakoa, han ez zen inoiz maitasunik egon.

Honela, amonari bere kutxatxoa eraman nion, baina zalantza handiak eduki nituen gutunarena amonari esan edo ez, eta azkenean, hainbeste urtetan gorderik eduki zuen istorioa berriro ez gogorarazteko eta sufritzen ez jartze arren ez esatea erabaki nuen. Orain benetan zoriontsua dela ikusten dut, bizi guztian antzerki bat bete beharra eduki duela ikusten dut, maitasuna oraingoa baita, eta benetakoa, zoriontsu orain baita. Hori da maitasunaren indarra!